

MARTXOA-EKAINA

4

MODULU

Formatu hibridoa

(presentziala + streaming)

BATZEN
GATUENA

FORMAKUNTZA PROGRAMA PRAKTIKOA ZURE PROIEKTU MUSIKALA INDARTZEKO

Musikari eta artista amateur
eta erdi-profesionalei zuzendua

musikabulegoa.eus

MUSIKUP

ANTOLATZAILEA

BABESLEA

LAGUNTZAILE NAGUSIA

LAGUNTZAILEAK

MUSIKA
BULEGOA

Batzen
Gatueña



KUTXA
FUNDA
ZIOA



Kultura215

Universidad de
Vitoria-Gasteiz EUNEIZ

NORI ZUZENDUTA DAGO?

Musika Bulegoak formakuntza-programa bat abiarazi du, euren musika proiektuaren hainbat esparrutan profesionalizaziora jauzi egin nahi duten musikari eta artista amateur eta semi-profesionalentzat. Horretarako, 4 modulu diseinatu dira, eta formatu hibridoan (presentziala-streaming) eskainiko dira martxo eta ekaina bitartean.

1. MODULUA MUSIKAREN KUDEAKETA

Hizlaria:

Marta C. Dehesa (Coladeperro)

Datak, ordua eta lekua:

- Martxoak 21: 10:00-14:00
Intxaurrondo Kultur Etxea (Donostia)
Aurrez aurreko saioa
- Martxoak 28: 10:00-11:30
Streaming (zoom)

Deskribapena:

Modulu honek musikaren arloko jabetza intelektualari buruzko sarrera praktikoa eskaintzen du. Parte-hartzaileek ulertuko dute zer eskubide dituzten beren obren gainean, nola babes ditzaketen eta zer aukera dauden obrak kudeatzeko eta ekonomikoki ustiatzeko.

Helburua da beren musikaren babesari, baimenari eta errentagarritasunari buruzko erabaki informatuak hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzea.

Gaiak:

- Jabetza intelektualak musikaren testuinguruan
- Kudeaketa ereduak eta eskubideen ustiapena
- Lizentziak eta erabilera-baimenak

2. MODULUA ENTSEGU ETA GRABAKETEN ANTOLAKETA

Hizlaria:

Xabi Zeberio

Datak, ordua eta lekua:

- Apirilak 25: 10:00-14:00
EUNEIZ (Vitoria-Gasteiz)
Aurrez aurreko saioa
- Maiatzak 8: 16:00-17:30
Streaming (zoom)

Deskribapena:

Modulu honek entsegu eraginkorrakoak nola antolatu eta grabazio saio baterako behar bezala nola prestatu aztertzen du. Parte-hartzaileek helburu argiak definitzen, lan denbora optimizatzen eta estudioan egiten diren ohiko akatsak saihesten ikasiko dute.

Taldeko komunikazioa eta dinamika ere landuko dira, errendimendu kolektiboa eta azken emaitzaren kalitatea hobetzen duten inguru profesionalaren berezko tresnak eta ohiturak txertatuz.

Gaiak:

- Entsegu bat antolatzea eta grabatzea
- Profesionaltasunari lotutako tresnak eta ohiturak grabaketa bati aurre egiteko

MUSIKUP

3. MODULUA

MUSIKA PROIEKTU BATEN KOMUNIKAZIO ETA MARKETINGA

Hizlaria:

Marta Abella (LUME!)

Datak, ordua eta lekua:

- Maiatzak 9: 10:00-14:00
EDE Fundazioa (Bilbo)
Aurrez aurreko saioa
- Maiatzak 16: 10:00-11:30
Streaming (zoom)

Deskribapena:

Modulu honetan musika-proiektu bat ingurune profesionalean nola aurkeztu eta kokatu landuko da. Parte-hartzaileek press kit bat garatzen, pitch eraginkorrek prestatzen eta komunikazio estrategia koherente bat diseinatzeko ikasiko dute. Sare sozialen erabilera estrategikoa eta nortasun artistikoarekin lerrokatutako komunikazio-estilo propioa nola eraikitzen den ere landuko da.

Gaiak:

- Komunikazio euskarriak (press kit)
- Aurkezpenak (pitch saioak)
- 360ºko ikuspegia: proiektu oso baten komunikazio estrategia
- Sare sozialak
- Estilo komunikatiboa

4. MODULUA

ESZENOGRAFIA ETA ESZENARATZEA MUSIKARIENTZAT

Hizlariak:

OSA+MUJKA

Datak, ordua eta lekua:

- Ekainak 6: 10:00-14:00
Dinamo/Soreasu (Azpeitia)
Aurrez aurreko saioa
- Ekainak 20, 10:00-11:30
Streaming (zoom)

Deskribapena:

Modulu honetan kontzertu baten maila nola igo landuko da, presentzia eszenikoaren eta ikus-baliabideen sormen erabileraren bidez. Parte-hartzaileek agertokian duten proposamen artistikoari koherentzia ematen ikasiko dute, beren nortasuna indartuz eta publikoarentzat esperientzia osoagoa sortuz. Tresna erraz eta irisgarriak landuko dira - oinarriko argiztapenetik hasi eta DIY irtenbidetaraino -, inspirazio gisa balioko duten benetako adibideekin batera.

Gaiak:

- Eszenografiaren bidez kontzertu baten maila igozea
- Eszenografia bat sortzeko oinarria (DIY, aurrekontu txikiko eszenografiak aukerak...)
- Agertokira igozko jarrera
- Erreferentzia bisualak



Marta C. Dehesa

(Coladeperro)

Marta C. Dehesa (www.coladeperro.com) abokatua eta kudeatzaile kulturala. Trebakuntza eta zerbitzuak ematen dizkie sormen-industria kultural, ETE, elkarte, ikastetxe eta erakundeetako artista eta profesionalei, jabetza intelektualean espezializatutako aholkulari juridiko gisa, eta lege-, lan- eta zerga-arloko tresnak eskaintzen dizkie, baita kontrataziorako, negoziatziorako eta jardunbide onetarako baliabideak ere.



Xabi Zeberio

Biolin interpretazio klasikoan ikasketak Bordeaux-eko Conservatoire National-en sakondu ondoren, jazz kontrabaxua, harmonia modernoa, moldaketa eta konposizio ikasketekin osatu zuen bere curriculum-a. 1997an, Oskorrin sartu eta taldearen despedidara arte, biolina jotzeaz aparte, hainbat konposizio eta moldaketa egiteaz arduratu zen. Alos Quarteten sortzaileetako bat ere bada, zeinarekin 5 diska kaleratu dituen. Musikari moduan, 180 grabaketetan baino gehiagotan parte hartu du, tartean: Eñaut Elorrieta, Kepa Junkera, Izaro, Benito Lertxundi, Imanol, Hertzainak, Mikel Laboa, Amorante edo Merina Gris, beste askoren artean. Gainera, esparru klasikoago batean, Euskadi Orkestrarekin kolaboratu izan du. Zinema eta telebista munduan ere hainbat soinu banden grabaketan parte hartu du, Aitor Etxebarria, Pascal Gaigne, Arantzazu Calleja, Maite Arroitauregi, Olivier Arson konpositoreekin batera, besteak beste. Biolina, biola eta kontrabaxuaz gain, Nyckelharpa instrumentua ere erabiltzen du bere sorkuntza zein grabaketetarako. 2023an, bakarkako ibilbide artistikoari hasiera emanez, PAUSE lana argitaratu zuen.



Marta Abella

(LUME!)

Marta Abella (Vigo, 1984) Lume! agentziako zuzendaria da. Hamabost urte baino gehiagoko esperientzia du musikaren sektorean, eta kultura-negozioaren ikuspegia hainbat ikuspuntu desberdinetatik landu izan du, urteetako esperientziaren bitartez. Bere ibilbidea l'm An Artist promotora eta management agentzian eta Marxophone zigilu independentean hasi zuen, Universal Music Publishing-etik pasatuz ikuspegi editorialarekin, Wegowren lehen hiru urteetan negozio garapeneko zuzendari bezala aurrera eginez eta orain bere agentzia propioarekin, Lume!, non artistak ordezkatzeaz gain, kultur industrientzako online komunikazio, sustapen eta marketinean espezializatzen diren.



OSA+MUJKA

OSA+MUJKA, Donostiako dantza garaikide konpainia da, Jaiotz Osa eta Xabier Mujikaren arteko topaketa artistikoa. Bi mundu sortzaileraren arteko elkartzea da: dantza eta jantzigintza/eszenografia. Bien artean sortzen duten taldearen helburua beraien barne gatazketatik abiatuz sorturiko obrak taularatzea da. Gizarte gaiak inspirazio hartuta, bisualki indartsuak diren istoriak kontatzen dituzte, dramaturgia, mugimendua eta estetika bereziki landuz. 2017az geroztik antzokirako zein ezohiko espazioetarako bederatzi dantza lan sortu dituzte. Horietako hainbat, Euskal Herriko antzokien SAREA-ko Gomendatutako Obren Katalogorako edo Espainiako Danza a Escena zirkuiturako izendatuak izan dira. Beraien obra propioak sortzeaz gain, GHAU edo IZARO bezalako musika proiektuetan parte hartu dute. Gartxot Unsain musikariaren GHAU proiektuarekin, arte zuzendaritza eta koreografiak sortu dituzte. IZAROREkin 2023 eta 2025 bitartean aritu dira lankidetzan; alde batetik, CERODENERO diskaren koreografiak sortu dituzte, bai bideoklipetarako, baita zuzenekoetarako ere, eta bestetik, IZARO GABONETAN diskaren arte zuzendariak izan dira, bideoetarako zein zuzenekoetarako eszegografia eta jantziak sortuz.

INFORMAZIO PRAKTIKOA:

Modalitatea

Hibridoa (presentziala + streaming)

Hizkuntza

Gaztelania*

*1., 2. eta 4. moduluetan, esku-hartzeak eta galderak euskaraz egin ahal izango dira.

PREZIOAK ETA IZEN-EMATEAK:

Musika Bulegoko bazkideak

Modulu solteko izen-ematea: 15 €

Kurtso osoa (4 modulu): 60 €

Tarifa orokorra

Modulo solteko izen-ematea: 25 €

Kurtso osoa (4 modulu): 100 €

Ordaintzeko modua

Banku-transferentzia bidez

(Banku-datuak izen emate-formularioa jasotakoan bidaliko dira).

Izen-ematea

Formularioa online

(plaza onartuta geratuko da ordainketa jaso ondoren).

Zalantzak

proiektuak@musikabulegoa.eus

ANTOLATZAILEA



BABESLEA



LAGUNTZAILE NAGUSIA



LAGUNTZAILEAK

